



AYUNTAMIENTO  
ESTELLA-LIZARRA  
UDALA

## 2024 EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA,

### 2023/2024 Ikasturtea

(2023ko uztailetik eta 2024ko irailera bitarte egindako ikastaroak)

Estella-Lizarrako Udalak, Euskara Batzordearen bidez, dirulaguntzak emanen ditu honako **OINARRI** hauek jarraiturik:

**1. XEDEA:** Deialdi honek arautzen dituen beken xedea da euskara ikasteak sortzen duen gastua hein batean finantzatzea.

**2. DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA:** Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagokako araubideari jarraikiz tramitatuko da. Xede horretarako, denboran eta behar bezala aurkezten diren eskaerak ikertuta emanen zaizkie laguntzak eskatzaileei, 6. oinarrian ezarritako irizpideak jarraituta.

Gastua ordainduko da 2024ko aurrekontuko 33500-4890000 “Dirulaguntza euskara ikasteko” kontu-sailaren kontura, gehienez ere 7.000 € emanen dira.

### 3. BALDINTZAK

#### 3.1) Eskatzailearenak:

Honako baldintza hauek betetzen dituzten Lizarrako biztanleek eskatu ahalko dute euskara ikasteko beka:

- a) 16 urtetik gorakoa izatea.
- b) Estella-Lizarrako erroldan inskribatuta egotea izena eman baino urte bat lehenago epearekin (ikastaroaren amaierako datan ere eskatzaileak erroldaturik egon beharko du dagokion beka osoa jasotzeko. Horrela ez balitz, baja dataren araberrako ordainketa proportzionala egingen litzateke).
- c) Estella-Lizarrako herritarrak izan eta euskarazko birziklapen programatan dauden administrazioko edo enpresa pribatuko langileak ez dira arautegi honetan sartuko. Horietako euskarazko birziklatze programaren batean ez egotearen zinpeko deklarazioa aurkezteko da.

e) Dirulaguntza jasotzeko ezinbestekoa izanen da Estella-Lizarrako Udalarekiko zerga betebeharrak eguneratuak izatea. Udalak ofizioz egiaztatuko du inguruabar hori.

#### 3.2) Ikastaroarenak:

Dirulaguntza hau 2023-2024 ikasturteari buruzkoa da.

Diruz lagunduko dira euskara ikastea helburua duten ikastaro mota guztiak: estentsiboak, trinkoak, barnetegiak eta autoikaskuntzakoak. Udako euskarazko ikastaro unibertsitarioak ere diruz lagunduko dira.



### 3.3) Bateragarritasuna:

Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publiko zein pribatuk helburu berberaz emandakoekin, betiere gain-finantzaketarik gertatzen ez bada. Edonola ere, eskatzaileek jasotako dirulaguntza guztien berri emanen diote Lizarrako Udalari.

## 4. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

Eskaerak Estella-Lizarrako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira epe honen barnean: **2024ko irailaren 1etik 30era**, biak barne, epea luzaezina izanen da. Epe honetatik kanpo ez da eskaerarik onartuko.

## 5. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

5.1. Eskatutako agiri guztiak jatorrizkoak izanen dira edo bestela, Udalak konpultsatuak.

5.2. Eskatzaileen datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera tratatuko dira.

5.3. Beka eskatzeko eskabide orokorrarekin batera honakoa ekarriko da:

- **Ikastaroa antolatzen duen erakundeak izenpeturiko dokumentua**, non hari buruzko baldintzak azaldu behar diren: iraupen datak, maila, ordu kopurua, bertaratze orduak eta ikastaroaren kostua. Dirulaguntza kobratu ahal izateko, **asistentziak %75** gainditu beharko du.

- **Matrikularen ordainagiria** (banketxeak edo ikastaroa antolatu duen erakundeak emana).

- Dirulaguntza jasotzeko nahi den **banku-libretako lehen orriaren fotokopia**.

5.4. Diruz lagundutako ikastaroa bukatu eta gero (edonola ere, 2024ko irailaren 30a baino lehen) euskaltegiak edo ikastaroaren erakunde antolatzaileak egindako asistentzia-agiria gehitu beharko da. Dirulaguntza eskuratu ahal izateko asistentziak %75tik gorakoa izan beharko du. Bertan ikasleak gainditutako maila(k) ere azalduko dira.

5.5. Akatsak zuzentzea. Aurkeztutako eskaeran agiri edo daturen bat falta izanen balitz, Udalak dokumentazioa osatzeko eskaera eginen du, hori egiteko epea hamar egun naturalekoa izanen delarik, jakinarazpena jasotzen denetik. Epea eskatutako agiri edo datuak aurkeztu gabe igarotzen bada, eskatzaileak uko eginen diola eskaerari ulertuko da.

## 6. DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

6.1. Beka ordaindutako matrikularen **%40** izanen da.

6.2. Edonola ere, deialdi bakoitzean ikasleak ez du **400 euro** baino gehiago jasoko.

6.3. Dirulaguntzen zenbateko osoa udal aurrekontuek deialdian erabiltzeko gordetako diru-kopurua baino handiagoa bada, hainbanaketa eginen da eskatutako baldintzak betetzen dituzten pertsona onuradunen artean.



AYUNTAMIENTO  
ESTELLA-LIZARRA  
UDALA

## **7. EBAZPENA, JAKINARAZPENAK ETA ORDAINKETAK**

7.1. Eskaera aurkeztzen denean ikastaroa bukatu bada, ikasleak bekaren % 100 jasoko du, Udaleko Euskara Zerbitzuak aldeko txostena egin eta udal organo eskudunak ebazpena eman eta gero.

7.2. Ebazpenaren kontra, bide administratiboa itxiko duena, errekurtsio hautakoren bat jarri ahalko da aukeran:

- ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA, Nafarroako Administrazioarekiko Auzien eskumeneko organo eskudunari zuzendua, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik BI HILABETEKO epean.
- GORA JOTZEKO errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, ebazpena jakinarazi eta ONDOKO HILABETEAN.
- BERRAZTERTZEKO errekurtsioa, egintza ebatzi duen organoari zuzendua, erabakia jakinarazi eta HILABETEKO epean

## **8. ESKATZAILEAREN BETEBEHARRAK**

- a) Diruz laguntzen diren ikastaroetan suerta daitezkeen aldaketa esanguratsuak Udalari jakinarazi behar dira.
- b) Baloratzaillei bere eginkizunean laguntzea.
- c) Diruz laguntzen diren ikastaroengatik eskatzaileek beste erakunde baten dirulaguntza jasotzen badute, berehala adierazi beharko diote Estella-Lizarrako Udalari. Bertako batzordeak dirulaguntzatik emateko kopurua aztertuko du.
- d) Dirulaguntza jasotzeko behar den xedea betetzea.
- e) Euskara Zerbitzuari erakustea dirulaguntza emateko edo jasotzeko arrazoi izan diren xedea, baldintzak edo beharkizunak bete direla.
- f) Udaleko Kontu-hartzailatza Orokorraren egiaztatze jarduketak onartzea, bai aurkeztutako dokumentazioan, baita finantza-kontrolan ere.
- g) Dirulaguntza emateko akordioan aurreikusitako betebeharrak betetzea.
- h) Jasotako funtsak itzultzea, dirulaguntza jasotzeko ezarritako baldintzak betetzen ez badira edo egindako ikastaroan lortutako gainakostua itzultzea.

## **9. DIRULAGUNTZA ITZULTZEA**

9.1 Dirulaguntzei buruzko, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 36. artikuluan aurreikusitako deuseztasun eta deuseztagarritasun kasuak ebazteaz gain, jasotako kopuruak itzuli beharko dira eta sorturiko berandutze-interesak ordaintzeko eskatzea ere, dirulaguntza ordaindu zenetik, diru-kopura itzultzea adosten den egunera, honako kasu hauetan:

- a) Dirulaguntza lortzea, hori eskuratzeko baldintzetan gezurra esanez edo laguntza hori baztertuko edo mugatuko luketen datuak ezkutatu.
- b) Dirulaguntza zer helburu betetzeko eman, eta horiek, erabat edo hein handi batean, betetzen ez badira, edo dirulaguntza oinarritzen dena edo ezarritako baldintzak dirulaguntza emateko ez betetzea.
- c) Justifikatu beharrekoa ez betetzea edo gutxiegi justifikatzea.

9.2. Itzuli beharreko kopuruek zuzenbide publikoko sarreren izaera izanen dute, hortaz, premiamendu bidea erabiliko da, diru-sarrera ezarritako epeetan egiten ez bada.

9.3. Jasotako diru-kopuruak osotara edo zati batean itzuli behar badira, baita ere berandutze-interesak, bidezkoa bada, ordaindu beharko dira. Hori guztia, honelakoetan, eskatu ahal diren gainerako zigorrak alde batera utzita.



AYUNTAMIENTO  
ESTELLA-LIZARRA  
UDALA

Itzuli beharreko kopurua zehazteko (jasotako kopuru osoa edo zati bat) proportzionaltasun irizpidea kontuan hartuko da.

#### **10. DIRULAGUNTZA ITZULTZEKO PROZEDURA**

Emandako dirulaguntza itzultzeko egin beharreko itzulketa-prozedurak Estella-Lizarrako Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza orokorrak ezarritakoari jarraituko dio.

#### **11. EZ BETETZEAK**

Dirulaguntza emateko orduan kontuan hartutako baldintzen aldatzeak emate ebazpena aldatzea edo deuseztatzea ekar lezake.

#### **12. ARAUTEGIA**

Oinarri hauek interpretatzeko eta ezartzeko sortu ahal diren galderak ebazteko Estella-Lizarrako Udalaren eskumena eta beste inorena izanen da. Eta oinarri hauetan aurreikusten ez dena Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza aplikatuko da, baita ere, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege-Dekretua, Dirulaguntzei buruzko arautegia.

Estella-Lizarra, 2024ko ekainaren 1ean  
Alkatea



AYUNTAMIENTO  
ESTELLA-LIZARRA  
UDALA

**SOLICITUD DE SUBVENCIÓN PARA EL APRENDIZAJE DEL EUSKERA**  
**DIRULAGUNTZA ESKABIDEA EUSKARA IKASTEKO**

<b>DATOS DE LA PERSONA SOLICITANTE / ESKATZAILEAREN DATUAK</b>			
NOMBRE Y APELLIDOS IZEN-ABIZENAK			
DNI, NIF NAN, IFZ		DOMICILIO HELBIDEA	
Nº Zk.	PISO SOLAIRUA	PUERTA ATEA	POBLACIÓN HERRIA
C.P PK		TELÉFONO TELEFONOA	
MÓVIL MUGIKORRA		CORREO ELECTRÓNICO POSTA ELEKTRONIKOA	

**EXPONE / AZALTZEN DU:**

Que al objeto de poder recibir las subvenciones correspondientes a ayudas económicas para el aprendizaje del Euskera del Ayuntamiento de Estella-Lizarrarra.

Estella-Lizarrako Udalak Euskara ikasteko ematen dituen diru-laguntzak jasotzeko asmoz

**Declaro responsablemente / Erantzukizunez aitortzen dut:**

No hallarse incurso en ninguna de las causas de prohibición previstas en el Artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y estar al corriente de pago con el Ayuntamiento de Estella-Lizarrarra.

Que reúnen los requisitos exigidos para poder solicitar estas ayudas.

Que son ciertos cuantos datos anteceden y cuanta documentación apporto, siendo consciente de que la ocultación o falsedad de los mismos pueden ser motivo suficiente para la cancelación del expediente, sin perjuicio de las demás acciones que en su caso procedan.

Que AUTORIZO expresamente al órgano convocante para verificar la realidad de los datos declarados y la veracidad de la documentación facilitada.

Ez dudala azaroaren 17ko, 38/2003 Legearen 13. artikulua diru-laguntzak arautzen dituen araudian aurreikusitako debekurik, eta eguneratuak ditudala nire zerga betebeharrak Estella-Lizarrako Udalarekin.

Oinarrietan eskatzen diren baldintzak betetzen ditudala.

Aitzineko datu guztiak egiazkoak direla eta orobat egiazkoa aurkezten dudana dokumentazio guztia, eta jakinaren gainean nagoela horiek ezkutatzea edo faltsutzea espedientea bertan behera uzteko arrazoi aski dela, kasu bakoitzean bidezko diren gainerako ekintzak aparte utzirik.

Lizarrako Udalarari BAIMEN espresa ematen diodala aitortutako datuak eta aurkeztutako agiriak egiazkoak direla frogatzeko



AYUNTAMIENTO  
ESTELLA-LIZARRA  
UDALA

### SOLICITA / ESKATZEN DU:

Acogerse a dichas ayudas, para lo cual acompaña a la presente instancia la siguiente documentación:

**Certificado de la entidad organizadora** del curso en el que se detallarán las condiciones del mismo: fechas de duración, nivel, número de horas, asistencia y coste del curso. Asistencia superior al 75%.

**Certificado Justificante del pago de la matrícula** (expedido por la entidad bancaria o la entidad organizadora del curso).

**Fotocopia de la primera hoja de la libreta** bancaria en la que se desea se ingrese la subvención.

Aipatu diru-laguntzak eskatzea, eta horretarako honako eskabide honekin batera ondoko agiriak ere aurkezten dira:

**Ikastaroa antolatzen duen erakundeak izenpeturiko dokumentua**, non hari buruzko baldintzak azaldu behar diren: iraupen datak, maila, ordu kopurua eta ikastaroaren kostua. Asistentziak %75 gainditu beharko du.

**Matrikularen ordainagiria** (banketxeak edo ikastaroa antolatu duen erakundeak emana).

Dirulaguntza jasotzeko nahi den **banku-libretako lehen orrialdearen fotokopia**.

Estella-Lizarra, 2024ko irailaren .....(e)an  
Firma / Sinadura